**Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuaren eta Nafarroako Erdialdeko Tokiko Ekintza Taldearen arteko hitzarmena 2025ean euskara sustatzeko eragile bat kontratatzeko eta sustapen jarduera programa bat gauzatzeko.**

## A) XEDEA

Hitzarmen honen xedea da Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuaren eta Erdialdeko Tokiko Ekintza Taldearen arteko oinarri orokorrak ezartzea, azken honek euskara sustatzeko eragile lanpostu bat sortu, horretan lanaldi osoan jarduteko teknikari bat kontratatu eta euskara sustatzeko jarduera programa bat gauza dezan 2025. urtean.

Erdialdea Garatzeko Partzuergoa 1996an sortu zen erakunde publikoa da eta eskualdearen garapen integrala eta berdintasunezkoa bultzatzea du helburu, eragile ekonomiko eta sozial guztien parte-hartzearen bidez.

Eskualdearen garapena sustatzea du helburu, administrazio desberdinetatik datozen laguntzak bideratzea eta kudeatzea barne, baita Europako Erkidegoko ekimenak ere.

Nafarroako PEPAC 2023-2027ren esparruan Erdiguneko jarduera-eremuan Toki Ekintzako Taldearen eginkizunak betetzen ditu, Landa Garapenako zuzendari nagusiaren martxoaren 29ko 59E/2023 ebazpenari eta Landa Garapeneko Partzuergoak toki garapeneko estrategia parte-hartzailea (LEADER) ezartzeko 2023/08/25ean sinatutako lankidetza-hitzarmenari jarraiki.

Euskara sustatzeko eragile lanpostua Tokiko Ekintza Taldeari atxikitakoa izanen da, 18/1986 Foru Legearen, Euskarari buruzkoaren estalpean sortua eta tokian-tokian euskararen

**Convenio entre Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera y el Grupo de Acción Local (GAL) de la Zona Media de Navarra para la contratación de un/a agente de promoción del euskera y el desarrollo de un programa de actividades de fomento en 2025.**

## A) OBJETO

El objeto del presente convenio es establecer las bases generales de colaboración entre Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera y el GAL de la Zona Media de Navarra para crear el puesto de agente de promoción del euskera, contratando un/a técnico/a a jornada completa, así como para desarrollar un programa de actividades de fomento del euskera en el año 2025.

El Consorcio de Desarrollo de la Zona Media es una entidad pública que nace en el año 1996 con el propósito de impulsar el desarrollo integral e igualitario de la comarca a través de la participación de todas y todos las/los agentes económicos/as y sociales.

Tiene como finalidad la promoción del desarrollo de la comarca, incluidas la canalización y gestión de las ayudas procedentes de diferentes administraciones, así como las propias iniciativas comunitarias.

Desempeña las funciones de Grupo de Acción Local en el ámbito de actuación de la Zona Media en el marco del PEPAC 2023-2027 en Navarra, atendiendo a la resolución 59E/2023, de 29 de marzo, del Director General de Desarrollo Rural y al Convenio de colaboración suscrito a fecha de 25/08/2023 entre el Departamento de Desarrollo Rural y Medio Ambiente y el Consorcio de Desarrollo de Zona Media para la implementación de su estrategia de desarrollo local participativo (LEADER).

erabilera sustatzea helburu duena, bai Tokiko Ekintza Taldean berean (erakundeak egiten duen hizkuntza kudeaketan), bai horren eraginpeko lurralde esparruan (tokiko entitateekin eta gizarte eragileekin elkarlanean), betiere Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuarekin koordinaturik.

El puesto de agente de promoción del euskera, creado al amparo de la Ley Foral 18/1986, del Euskera, estará adscrito al Grupo de Acción Local y su objetivo será el de promocionar el uso de esta lengua tanto en el propio Grupo de Acción Local (dentro de la gestión lingüística de la organización), como en su ámbito territorial (en colaboración con las entidades locales y los organismos sociales), en coordinación con Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera.

**B) INDARREKO ARAUDIA**

Hitzarmen hau ondokoan ezarritakoaren arabera arautuko da:

1.- 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa. Foru lege horren 1.2 artikuluan ezartzen dira zein diren Foru Legearen funtsezko helburuak: herritarrek euskara ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea babestu eta eginkor bihurtzeko tresnak zehaztea; euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea, bere erabilpena sustatzeko neurriak adieraziz; eta euskararen erabilpena eta irakaskuntza bermatzea, borondatezkotasun, mailakatze eta begirune irizpideei jarraikiz, hori guztia Nafarroako errealitate soziolinguistikoarekin bat etorriz.

2.- 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

3.- 240/2023 Foru Dekretuak, azaroaren 15ekoak, Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onetsi zituenak, eginkizun hauek, besteak beste, esleitzen dizkio: euskara bizitza sozialeko esparruetan agertu eta erabiltzeko informazio eta sentsibilizazio programak gauzatzea eta helburu hori bera duten entitate publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzea.

4.- 2023-2027 legealdiko Nafarroako Gobernurako Programa Akordioak honako hau jasotzen du, besteak beste: euskara sustatzea komunikabideen arloan, helduen euskalduntzean eta gizarte eta kultura bizitzan, batik bat gazteei zuzendutako programetan.

**B) NORMATIVA APLICABLE**

El presente Convenio se regirá por todo lo establecido en:

1.- La Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Euskera, que en su artículo 1.2 establece los objetivos esenciales de la misma: proteger el derecho de la ciudadanía a conocer y usar el euskera, y concretar los medios para hacerlo posible; observar su recuperación y desarrollo, indicando medidas para fomentar su uso; y garantizar el uso y la enseñanza del euskera, con arreglo a los principios de voluntariedad, gradualidad y respeto, todo ello de acuerdo a la realidad sociolingüística del euskera en Navarra.

2.- La Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones.

3.- El Decreto Foral 240/2023, de 15 de noviembre, por el que se aprueban los Estatutos del organismo autónomo Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera, le asigna a éste las siguientes funciones, entre otras: realizar programas de información y de sensibilización sobre el euskera y su uso en los distintos ámbitos de la vida social, así como colaborar con entidades públicas y privadas con este mismo objeto.

4.- El Acuerdo Programático para el Gobierno de Navarra de la legislatura 2023-2027 recoge, entre otros, el compromiso de fomento del euskera en los medios de comunicación, en la enseñanza del euskera a personas adultas y en la vida social y cultural, impulsando de manera especial

Orobat, Erakunde publikoekin eginiko hitzarmenei jarraitutasuna eman edo, dagokion kasuetan, arlo publikoarekiko modu subsidiarioan euskararen arloan erantzukizuna duten gizarte-entitateekin eginikoei.

5.- 19/2024 Foru Legea, abenduaren 26koa, 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, honako izena duen diru-saila duena: B30002 B3200 4609 334102 ”(E) Euskara sustatzeko eragile kontratatzeko eta jarduerak egiteko GAL Erdialdeko Taldearekiko hitzarmena”, 42.000,00 euroko zuzkidura duena. Dokumentu honek xede hori betetzen du.

## C) HITZARMENAREN IRAUPENA

Hitzarmen hau sinatzen den egunean indarrean sartuko da eta indarraldia 2025eko abenduaren 31n amaituko da. Diruz lagungarriak diren gastuak 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 bitarte sortutakoak eta ordaindutakoak izanen dira.

## D) AURREKONTUA

Aurrekontua 42.000,00 eurokoa izanen da, 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorren B30002 B3200 4609 334102 ”(E) Euskara sustatzeko eragile kontratatzeko eta jarduerak egiteko GAL Erdialdeko Taldearekiko hitzarmena” izeneko diru-sailaren kargura.

## E) DIRUZ LAGUNDUKO DIREN JARDUERAK

1.- Diruz laguntzen ahalko dira:

1.1- Euskara sustatzeko eragile lanpostuan lanaldi osoan jarduteko teknikari baten kontrataziotik etorritako gastuak: nominak (erreferentziatako Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko B mailako langileen hasierako soldata [2024ko abenduaren 31ko

programas dirigidos a la población más joven. Asimismo, se recoge la necesidad de dar continuidad a los convenios con instituciones públicas y/o en su caso, de manera subsidiaria a lo público, con aquellas entidades sociales con responsabilidad en el euskera.

5.- La Ley Foral 19/2024, de 26 de diciembre, de Presupuestos Generales de Navarra para el año 2025, que contempla la partida nominativa B30002 B3200 4609 334102 “(E) Convenio con GAL Zona Media para actividades y contratación agente de promoción del Euskera”, dotada con 42.000,00 euros. El presente documento da cumplimiento a dicho objetivo.

## C) DURACIÓN DEL CONVENIO

La vigencia del presente Convenio será desde el momento de la firma hasta el 31 de diciembre de 2025. Serán gastos subvencionables los generados y satisfechos entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2025.

## D) PRESUPUESTO

El presupuesto será de 42.000,00 euros, con cargo a la partida B30002 B3200 4609 334102 “(E) Convenio con GAL Zona Media para actividades y contratación agente de promoción del Euskera” de los Presupuestos Generales de Navarra para 2025.

## E) ACTIVIDADES OBJETO DE SUBVENCIÓN

1.- Serán subvencionables:

1.1- El gasto derivado de la contratación de una persona de perfil técnico para el puesto de agente de promoción del euskera: nóminas (tomando como referencia el sueldo inicial que se aplique al personal al servicio de las Administraciones Públicas de Navarra, correspondiente al nivel B [a 31 de diciembre de 2024]) y la cuota empresarial correspondiente a la Seguridad Social.

zenbatekoan] hartua) eta kontratuari dagokion Gizarte Segurantzako enpresa kuota.

1.2- Euskara sustatzeko gauzatuko den jarduera programaren gastu zuzenak. Jarduerek F.2 atalean zehazten diren funtzioak betetzeari zuzenean loturik egon behar dute, euskara sustatzeko jarduerak, baliabideak hedatzeko edo iragartzeko gastuak eta, oro har, komunikazio ekintzei dagozkienak, barne direla.

2.- Diruz lagungarriak ez direnak:

2.1- Tokiko Ekintza Taldearen beraren zerbitzuen funtzionamenduak sortzen dituen gastuak.

2.2- Ekipamenduak (material informatiko edo telefoniakoa).

2.3- Otorduak, edariak, aperitiboak, opariak, protokoloari loturiko gastuak eta antzekoak.

**F) KONTRATAZIORAKO PROFILA ETA DAGOZKION FUNTZIOAK**

1. Kontrataziorako profila eta prestakuntza teknikoa

1.1- Euskara sustatzeko eragile lanpostuan jarduteko teknikariak unibertsitateko Gradu bat izan behar du, bai eta euskaraz C1 edo Euskara Gaitasun Agiria (EGA) ere, kontratazioa gauzatzen delarik.

1.2- Prestakuntza teknikoa. Euskara sustatzeko eragile lanpostuan jarduteko teknikaria behin kontratatuz gero, teknikari horrek Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuak haren funtzioetan trebatzeko prestakuntza berariazkoa emateko antolatuko duen saioetan parte hartu beharko du.

2. Kontratazioari loturiko funtzioak

Euskara sustatzeko eragile lanpostuari honako funtzio hauek dagozkio eta beraiek dira diruz laguntzen ahal direnak:

2.1- Tokiko Ekintza Taldearen barnean

- Tokiko Ekintza Taldearen irudian eta barne nahiz kanpo komunikazioetan euskara

1.2- Los gastos directos del programa de actividades de fomento del euskera. Las actividades habrán de estar directamente relacionadas con la realización de las funciones definidas en el apartado F.2, incluyéndose los gastos de publicación de materiales para la divulgación o publicidad de actividades, recursos y, en general, actuaciones de comunicación sobre el fomento de la lengua vasca.

2.- Los gastos no subvencionables son:

2.1- Los gastos derivados del funcionamiento de los servicios propios del Grupo de Acción Local.

2.2- Los gastos por compra de equipamiento (como material informático o de telefonía).

2.3- Los gastos de comidas, bebidas, aperitivos, regalos, atenciones protocolarias o similares.

**F) EL PERFIL DE LA CONTRATACIÓN Y LAS FUNCIONES QUE LE CORRESPONDEN**

1. Perfil de la contratación y formación técnica

1.1- La persona de perfil técnico que ocupe el puesto de agente de promoción del euskera estará en posesión de un título de Grado universitario y el certificado C1 en euskera o Certificado de Aptitud en esta lengua (EGA) para la formalización de la contratación.

1.2- Formación técnica. Una vez contratada la persona de perfil técnico que ocupe el puesto de agente de promoción del euskera, ésta tendrá que asistir a las sesiones de formación específica sobre sus funciones que impartirá Euskarabidea -Instituto Navarro del Euskera.

2. Funciones vinculadas a la contratación

Las funciones objeto de la subvención que le corresponderán al puesto de agente de promoción del euskera son:

2.1- Dentro del Grupo de Acción Local

- Elaborar planes de uso del euskera en la imagen y comunicación, tanto interna como externa, del Grupo de Acción Local (por

erabiltzeko planak egin. Esaterako: logotipoan, webgunean eta bestelako informazio euskarrietan.

- Tokiko Ekintza Taldeko langileei hizkuntza-aholkularitza eskaini: itzulpen laburrak eta testu orrazketa egin, itzulpenetarako laguntza-baliabideen berri eman, euskara prestakuntzaren eta horretarako dauden dirulaguntzen gaineko informazioa zabaldu.
- Tokiko Ekintza Taldearen jarduera-ildo eta zerbitzuetan euskara, zeharkako elementutako, nola txertatu gainontzeko teknikariekin aztertu eta planifikatu.
- Nafarroako Gobernuak, Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuaren bidez, euskararen erabilera sustatzeko dituen dirulaguntza deialdien berri eman, proiektuak edo jarduerak aurkezteko aukerak aztertu eta, hala balitz, Tokiko Ekintza Taldeko gainontzeko teknikariei kudeaketan lagundu.

2.2- Tokiko Ekintza Taldearen eraginpeko eskualdeetan

2.2.1- Toki entitateekin eta gizarte eragileekin

- Euskara Zerbitzu Teknikoa duten udalerrietan, zerbitzu horrekin modu koordinatuan eta osagarrian jardun euskararen erabilera sustatzeko.
- Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuarekin koordinatu euskara sustatzeko dituen programak (motibazio eta bestelako kanpainak) eskualdeetan garatzeko.
- Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuak antolatzen dituen sustapen kanpainak eta programak eraginpeko eremuan zabaldu eta gizarteratu.
- Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuak euskararen erabilera sustatzeko egiten dituen dirulaguntza deialdien berri eman (euskara ikasleei zuzendua, toki entitateei zuzendua, hedabideei zuzendua, elkarteei zuzendua, enpresei eta fundazioei zuzenduak, besteak

ejemplo: en su logotipo, en su web o en otros soportes informativos).

- Ofrecer asesoramiento lingüístico al personal del Grupo de Acción Local: realización de traducciones breves y supervisión de textos, información sobre recursos de apoyo para la traducción, información sobre formación en euskera y las ayudas existentes para el aprendizaje.
- Analizar y planificar junto con el personal técnico del Grupo de Acción Local cómo incorporar el euskera en sus líneas de trabajo y en sus servicios como un elemento transversal.
- Informar sobre las convocatorias de ayudas para el fomento del uso del euskera que ofrece el Gobierno de Navarra mediante Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera, estudiar la posibilidad de presentar proyectos o actividades y, si procede, apoyar al personal técnico del Grupo de Acción Local en su tramitación.

2.2- En las comarcas ámbito del Grupo de Acción Local

2.2.1- Con las entidades locales y los agentes sociales

- En los municipios que cuentan con un Servicio Técnico de Euskera, actuar de forma coordinada y complementaria con dicho servicio para el fomento del uso del euskera.
- Mantener coordinación con Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera para desarrollar en las comarcas sus programas de fomento del euskera (campañas de motivación, entre otras).
- Difundir y socializar en su ámbito geográfico las campañas y programas de fomento del euskera que organiza Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera.
- Informar sobre las convocatorias de ayudas de Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera

beste), aholkularitza eskaini eta proiektuen kudeaketan lagundu.

- Euskararen sustapen jarduerak proposatu eta eskualdean euskararen erabilera bultzatzeko erreferentziazko eragilea izan.
- Beren helburuetan euskara sustatzea duten gizarte eragileekin (euskaltegiekin, euskara elkarteekin…) elkarlanean jardun.
- Euskara (A ereduan) edo euskaraz (B eta D ereduetan) irakasten duten ikastetxeekin elkarlanerako aukerak aztertu ikasleei, curriculumez kanpoko esparruetan, euskaraz jarduteko errefortzuzko programa osagarria eskaintzeko.
- Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuak arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko egiten dituen programak garatu (*Euskaraz barra-barra* dinamika, esaterako), euskarak baliabide ekonomikotako izan dezakeen balioa gizarteratzeko.
- Euskara landa eremuko despopulatzearen kontrako tresnatako joka dezakeela ohartarazi eta hala izan dadin neurriak proposatu.

2.2.2- Herritarrekin

Eskualdeko euskaldunen eta euskaltzaleen arteko harremana saretzea eta hizkuntza-aktibazioa erraztu, eta euskararen erabilerarako guneak eta uneak sortzeko eta ugaltzeko, programak antolatu eta horiek dinamizatu.

para el fomento del euskera (las dirigidas a personas adultas que aprenden euskera, a las entidades locales, a los medios de comunicación, a las asociaciones, a las empresas y fundaciones, entre otras), así como ofrecer asesoramiento y apoyo en la tramitación de las mismas.

- Proponer acciones de fomento del euskera y ser un agente de referencia para el impulso de esta lengua.
- Colaborar con los organismos sociales que tienen entre sus objetivos el fomento del euskera (euskaltegis, asociaciones…).
- Estudiar formas de colaboración con los centros escolares que enseñan euskera (en el modelo A) y en euskera (en los modelos B y D) para ofrecer al alumnado actividades complementarias de refuerzo del uso del euskera en el ámbito extracurricular.
- Desarrollar los programas de Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera para el fomento del euskera en el ámbito socioeconómico (por ejemplo, el programa *Euskaraz barra-barra*), socializando el valor que el euskera puede tener como elemento de desarrollo económico.
- Presentar el euskera como un elemento que puede contribuir a frenar la despoblación rural y proponer medidas en ese sentido.

2.2.2- Con la ciudadanía

Favorecer la relación, el tejido social y la activación de las personas vascohablantes y amantes del euskera de las comarcas, así como diseñar y dinamizar programas para la creación de espacios sociales y situaciones comunicativas para el uso de la lengua vasca.

## G) DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATU

## G) JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN

Dirulaguntzaren justifikazioa, 11/2005 Foru Legeak, azaroaren 9koak, Dirulaguntzen gainekoak ezarritako epeetan eginen da ondoren zehazten diren dokumentuen bidez:

a) Dirulaguntza justifikatzeko agiriak Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez aurkeztuko dira, Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuari zuzenduta.

Dagokion ordainketa egiteko, dokumentazioa aurkezteko epea 2025eko abenduaren 9an bukatuko da. Halere, H oinarriarekin bat, 2026ko otsailaren 28rako bidali beharko da 2025eko azaroaren 30etik aurrera egindako jardueren justifikazioa.

b) Langilearen kontratazio gastuak justifikatzeko Erdialdeko Tokiko Ekintza Taldeak kontratua, nominak, Gizarte Segurantzaren kotizazio agiriak eta PFEZ atxikipenak aurkeztu beharko ditu, baita ordainketen frogagiriak ere.

c) Euskara sustatzeko jarduerei loturiko gastu zuzenak justifikatzeko, gastu horiek zerrendatuko dira bakoitzari dagozkion xehetasun hauek adierazirik: zenbatekoa eta ordainketa data. Agiri horiekin batera fakturak eta beharrezko jotzen diren frogagiriak, bai eta ordainketa agiria ere, atxikiko dira.

Faktura eta gainerako agiriak modu korrelatiboan zenbakituko dira eta gastuen zerrendan ageri diren hurrenkera berean aurkeztuko dira, BEZ edo bestelako zergak barne hartzen dituztela. Jarduera zergen ordainketatik salbuetsirik egonen balitz, hala adieraziko da.

Orobat, diruz lagundutako egitasmoak bukatu ondoren eta dirulaguntza jaso ahal izateko, Erdialdeko Toki Ekintza Taldeak egitasmoaren oroitidazkia aurkeztuko dio Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuari, ezarritako helburuak bete ote diren ikuste aldera. Aipatutako oroitidazkia aurkezteko epea 2025eko abenduaren 10ean amaituko da.

La justificación de la subvención, según las condiciones establecidas en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones, se realizará en los plazos y mediante los documentos que se relacionan:

a) La documentación justificativa de la subvención concedida será presentada a través del Registro General Electrónico del Gobierno de Navarra y dirigida a Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera.

Para proceder al abono, el plazo para la presentación de dicha documentación finalizará el 9 de diciembre de 2025. Sin embargo, de acuerdo con la base H, para el 28 de febrero de 2026 se deberá enviar la justificación de las actividades realizadas con posterioridad al 30 de noviembre de 2025.

b) Para la justificación de los gastos de contratación del/de la trabajador/a, GAL de la Zona Media de Navarra presentará el contrato, las correspondientes nóminas, cotizaciones sociales y retenciones de IRPF, así como los justificantes de pago.

c) La justificación de los gastos directos relativos a las actividades de fomento del euskera se realizará mediante la presentación de una relación numerada de los mismos donde se detallará para cada uno de ellos su importe y fecha de pago. A esta relación se adjuntarán las facturas u otro tipo de documentos con valor probatorio equivalente, así como el documento acreditativo de su pago.

Las fotocopias de las facturas y demás documentos justificativos de gasto se deberán numerar de forma correlativa y presentarse en el mismo orden que el que figura en la relación de gastos contemplando, en su caso, IVA o cualquier otro impuesto. En aquellos casos en los que la actividad estuviera exenta de impuestos, así se hará constar.

Además, una vez realizados los proyectos subvencionados, y con el fin de proceder al cobro

## H) DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA

Dirulaguntza epe bakarrean ordainduko da, 2025eko abenduaren 31 akitu baino lehen, aldez aurretik 2025eko azaroaren 30era arteko gastuen ordainketa-agiriak aurkeztuta. Azaroaren 30etik abenduaren 31 bitartean sortutako eta ordaindutako gastuak aldez aurretik ordaindu ahal izanen dira, eta dagokion justifikazioa aurkeztu beharko da 2026ko otsailaren 28a baino lehen. Bestela, soberan kobratutako zenbatekoa itzultzeko prozedura hasiko da, gastuen kalkulu erreala eta horrek sortutako interesak oinarri hartuta.

Edonola ere, ordainketaren zenbatekoa egindako benetako gastuen justifikazioaren araberakoa izango da.

## I) GARDENTASUN BETEBEHARRA

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 3.c) artikuluan aipatutako entitate pribatuak behartuak daude gardentasun betebeharra betetzera baldin eta, urtebetean, 20.000 eurotik gorako laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen badituzte Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura, edo jasotako laguntzak edo dirulaguntzak beren urteko diru-sarrera guztien %20 edo gehiago badira eta, gutxienez, 5.000 euro. Horretarako, II. eranskineko. eredua bete beharko dute, Gardentasun Betebeharrari buruzko Adierazpena, alegia.

Aurreko atalean ezarritako mugak gainditzen ote diren jakiteko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo haren

de la subvención, GAL de la Zona Media de Navarra presentará a Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera una memoria del proyecto, que incluirá la valoración del cumplimiento de los objetivos previstos. El plazo para presentar dicha memoria finalizará el 10 de diciembre de 2025

## H) ABONO DE LA SUBVENCIÓN

El abono de la subvención se realizará en un único plazo antes de la finalización del 31 de diciembre de 2025 e incluirán, en concepto de anticipo, los gastos que se generen y abonen entre el 30 de noviembre y el 31 de diciembre de 2025 debiendo ser justificados estos antes del 28 de febrero de 2026. En caso contrario, se iniciará un procedimiento de reintegro de la cantidad cobrada de más en base al cálculo real de gastos, más los intereses que ello hubiera generado.

En todo caso, el importe a abonar dependerá de la justificación efectiva de gastos realizada.

## I) OBLIGACIONES DE TRANSPARENCIA

Las entidades privadas a que hace referencia el artículo 3.c) de la Ley Foral 5/2018, de 17 de mayo, de Transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, están sujetas a las obligaciones de transparencia cuando perciban, durante el periodo de un año, ayudas o subvenciones con cargo a los presupuestos generales de Navarra en una cuantía superior a 20.000 euros, o cuando las ayudas o subvenciones percibidas representen al menos el 20% del total de sus ingresos anuales, siempre que alcancen como mínimo la cantidad de 5.000 euros, para lo cual deberán cumplimentar el modelo de Declaración sobre la Obligación de Transparencia que figura en el Anexo II.

A los efectos de considerar si se superan los límites cuantitativos establecidos en el apartado anterior, se sumarán las cuantías de todas las

erakunde publikoek urte naturalean emandako dirulaguntza guztien kopuruak batuko dira. Urte batean baino gehiagotan ordaintzen diren dirulaguntzen kasuan, aurrekontuko ekitaldi bakoitzean emandako kopurua hartuko da kontuan ondorio horietarako, ez guztizko batura. Negozio zifra honako hauetako txikiena izanen da:

a) Aurreko urteko negozio-zifra.

b) Hala bada, dirulaguntza ematen den ekitaldian entitatearen organo eskudunak onartutako negozio zifra.

Aipatu diren inguruabarrak gertatzeagatik gardentasun betebeharrak dituzten entitate onuradunek jarraian adierazten den informazioa eman beharko dute hilabeteko epean, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita:

a) Entitatearen gobernu, administrazio eta zuzendaritza organoen osaera.

b) Organo horiek osatzen dituzten kargudunen zerrenda.

c) Entitateak aurreko urtean kargudun bakoitzari ordaindutako ordainsari gordinak eta gainerako diru konpentsazioak, kontzeptuz kontzeptu. Sortu berriak diren entitateen kasuan, informazioa izanen da haien aurrekontuetan edo plan ekonomiko-finantzarioan jasotakoa.

d) Gobernu, administrazio eta zuzendaritza eginkizunetan ematen den dedikazioaren araubidea.

e) Entitate onuradunaren urteko azken kontuen kopia bat.

Informazio hori entitate onuradunaren legezko ordezkariak sinatuta aurkeztuko da, Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokor Elektronikoaren bide telematikoak erabiliz, eta Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuari bidaliko zaio.

Entitateak gardentasun betebeharra bete behar ez badu aurreikusitako inguruabarrak gertatzen

subvenciones concedidas por la Administración de la Comunidad Foral de Navarra o sus organismos públicos en el año natural. En el caso de subvenciones cuyo pago se haga en diferentes anualidades, se computará a estos efectos la cantidad concedida en cada ejercicio presupuestario y no la suma total. La cifra de negocio será la que tenga menor importe entre las siguientes magnitudes:

a) La cifra de negocio del año anterior.

b) En su caso, la cifra de negocio aprobada por el órgano competente de la entidad en el ejercicio de concesión de la subvención.

Las entidades beneficiarias de subvenciones que se encuentren sujetas a la obligación de transparencia al concurrir los supuestos previstos deberán comunicar en el plazo de un mes contado desde la notificación de la resolución de concesión la información que se relaciona a continuación:

a) Composición de los órganos de gobierno, administración y dirección de la entidad.

b) Relación de los cargos que integran dichos órganos.

c) Las retribuciones brutas y demás compensaciones económicas percibidas de la entidad en el año anterior por cada uno de los cargos, desglosadas por conceptos. En el caso de entidades de nueva creación, la información será la que figure en sus presupuestos o plan económico-financiero.

d) El régimen de dedicación a las funciones de gobierno, administración y dirección de la entidad.

e) Una copia de las últimas cuentas anuales de la entidad beneficiaria.

La información señalada se presentará firmada por el o la representante legal de la entidad beneficiaria de forma telemática a través del Registro General Electrónico del Gobierno de

ez direlako, horren gaineko aitorpena aurkeztu beharko du.

Entitateak ekitaldi berean dirulaguntza bat baino gehiago jasotzen badu, ez du informazioa errepikatu beharko dirulaguntza bakoitzerako, salbu eta hasieran eman zituen datuak aldatzen badira. Horretarako, entitateak identifikatu beharko du Foru Komunitateko Administrazioaren zein organoren aurrean aurkeztu zuen, eta noiz.

Entitate onuradunak emandako informazioa Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren Gobernu Irekiko Atarian argitaratuko da eta eskura izanen da argitaratu eta urte betean zehar. Muga 15 hilabetekoa izanen da, informazioa kudeatzeko organoan sartzen den unetik hasita. Epe hori iraganda, argitaratzearen ardura duen unitateak ofizioz erretiratuko du eta, ez balu hala egiten, entitate onuradunak eska dezake erretira dadila eta, gehienez ere, eskabidea jasotzen den unetik hasita hilabeteko epean eginen da.

Onuradunak informazioa emateko duen betebeharra ez betetzeagatik izan daitezkeen balizko ondorio zigortzaileak galarazi gabe, ez betetze horrek emandako dirulaguntza ordaintzea galaraziko du, aurrerakinak barne eta, kasua bada, emandako kopuruak itzultzea ekarriko du, Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 35.1 c) artikuluan.

Aurrekoa galarazi gabe, onuradun guztiak behartuak daude unitate kudeatzaileari behar den informazio guztia ematera, aurretiazko errekerimendua eginda eta hamar eguneko epean, frogatzeko betetzen direla maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen II. tituluan jasotako gardentasun betebeharrak (aipatutako foru lege horrek hizpide ditu gardentasuna, informazio publikoa eskuratzea eta gobernu ona).

Errekerimenduan emandako epea bukatzen bada eskatutakoa bete gabe, hertsapen isunak ezartzea erabakitzen ahalko da, 500 eurotik 5.000 eurora bitartekoak, interesdunari ohartarazpena egin ondoren eta entzunaldia emanda. Isuna hamabost egunetik behin

Navarra y se dirigirá a Euskarabidea – Instituto Navarro del Euskera.

En el caso de que la entidad no se encuentre sujeta a la obligación de transparencia al no darse los supuestos previstos, deberá presentar una declaración en tal sentido.

En el caso de que la entidad sea beneficiaria de sucesivas subvenciones en el mismo ejercicio, no será preciso reiterar la información con ocasión de cada subvención, salvo que hayan cambiado los datos que se facilitaron inicialmente. Para ello, la entidad deberá identificar el momento y el órgano de la Administración de la Comunidad Foral ante el que la presentó.

La información facilitada por la entidad beneficiaria será publicada en el Portal de Gobierno Abierto de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra y será accesible durante 1 año desde su publicación, con el límite de 15 meses desde su entrada en el órgano gestor de la información. Transcurrido dicho plazo, la unidad responsable de su publicación la retirará de oficio, y si no lo hiciera, la entidad beneficiaria podrá solicitar su retirada, que deberá producirse en el plazo máximo de un mes desde la solicitud.

Sin perjuicio de las eventuales consecuencias sancionadoras que se pudieran derivar del incumplimiento de las obligaciones de información por el beneficiario, este incumplimiento impedirá el abono de la subvención concedida, incluidos los anticipos y conllevará, en su caso, el reintegro de las cantidades percibidas, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 35.1 c) de la Ley Foral de Subvenciones.

Sin perjuicio de lo anterior, todos los beneficiarios estarán obligados a suministrar a la unidad gestora, previo requerimiento y en un plazo de diez días, toda la información necesaria para el cumplimiento por ésta de las obligaciones de transparencia previstas en el Título II de la Ley

errepikatuko da, errekerimendua bete arte. Isunaren zenbateko osoa ez da izanen dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko bost baino handiagoa. Zenbatekoa zehazteko, ez-betetzearen astuntasuna eta proportzionaltasunaren printzipioa hartuko dira kontuan.

## J) EZ-BETETZEAK, ITZULKETAK ETA ARAU-HAUSTEAK

Ez-betetze arintzat joko dira irregulartasun formalei dagozkienak; halakoetan, dirua partez itzuli beharra egonen da, edo ordainketa partzialik ez egitea, ez-betetzearen muntaren arabera. Ez-betetze astuntzat joko dira, berriz, funtsezko kontuei dagozkienak; halakoetan, arau orokor gisa, dirua osorik itzuli beharko da, edo ez da deus ere ordainduko. Batean nahiz bestean berandutze-interesak eskatzen ahalko dira, azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarritako kasuetan. Balorazio batzordeak mailakatzea egiteko komenigarriak iruditzen zaizkion irizpideak ezartzen ahalko ditu.

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen IV. tituluan xedatutakoa aplikatuko da.

## K) DIRULAGUNTZAREN PUBLIZITATEA

Onuradunak behar bezalako publizitatea emanen dio hartutako dirulaguntzari, dirulaguntzaren onespenaren hasieratik eman ere. Ahozko zein idatzizko publizitate bakoitzean jasoko da Nafarroako Gobernuak Euskarabidea -

Foral 5/2018, de 17 de mayo, de Transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.

Una vez transcurrido el plazo conferido en el requerimiento sin que el mismo hubiera sido atendido se podrá acordar, previo apercibimiento y audiencia al interesado, la imposición de multas coercitivas de 500 a 5.000 euros. La multa será reiterada por períodos de quince días hasta el cumplimiento. El total de la multa no podrá exceder del cinco por ciento del importe de la subvención. Para la determinación del importe, se atenderá a la gravedad del incumplimiento y al principio de proporcionalidad.

## J) INCUMPLIMIENTOS, REINTEGROS E INFRACCIONES

Se considerarán incumplimientos leves los referidos a irregularidades formales, en cuyo caso procederán reintegros o ausencia de abonos parciales proporcionales a dichos incumplimientos; e incumplimientos graves los referidos a cuestiones sustantivas, en cuyo caso la regla general será el reintegro o ausencia de abono total, sin perjuicio, en ambos casos, de la exigencia de interés de demora en los supuestos establecidos en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre. La Comisión de Valoración podrá establecer los criterios de graduación que estime oportunos.

En materia de infracciones y sanciones se estará a lo dispuesto en el título IV de la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones.

## K) PUBLICIDAD DE LA SUBVENCIÓN

La entidad beneficiaria deberá dar la adecuada publicidad de la subvención concedida desde el inicio de la aprobación de la misma, haciendo constar en cada publicidad oral y escrita la participación del Gobierno de Navarra mediante Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera. Esta mención se hará de acuerdo con las

Euskararen Nafar Institutuaren bitartez parte hartzen duela. Aipamen hau Nafarroako Gobernuko sinbolo ofiziala arautzen duen otsailaren 12ko 8/2020 Foru Dekretuaren jarraibideekin bat eginen da eta jarduera zabaltzen den denbora guztian mantenduko da.

**L) DIRULAGUNTZAREN BATERAGARRITA-SUNA**

Dirulaguntza hauek bateragarriak dira xede bererako jaso daitezkeen bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin. Horietako bat lortuz gero, jakin bezain laster Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuari horren berri eman beharko zaio, betiere, jasotako dirua zertan erabili den frogatu baino lehen.

Hori hala izanik ere, dirulaguntzen kopurua ez da sekula, bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izanen.

indicaciones del Decreto Foral 8/2020, de 12 de febrero, que regula el símbolo oficial del Gobierno de Navarra y se mantendrá durante todo el tiempo de difusión de la actividad.

**L) COMPATIBILIDAD DE LA SUBVENCIÓN**

Esta subvención es compatible con la percepción de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, cuya obtención se deberá comunicar a Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera tan pronto como se conozca y en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

No obstante, el importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

Iruñean, sinadura digitalaren egunean.

OLLO HUALDE ANA ISABEL - DNI 18205106P

Firmado digitalmente por OLLO HUALDE ANA ISABEL - DNI 18205106P
Fecha: 2025.07.14 11:53:42 +02'00'

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria / La Consejera de Memoria y Convivencia, Acción Exterior y Euskera

Ana Ollo Hualde

En Pamplona a la fecha de la firma digital.

Firmado digitalmente por 09743837W MARIA ROSARIO DOMINGOS (R: P3158472E)
Fecha: 2025.07.14 12:34:34 +02'00'

Erdialdeko Tokiko Ekintza Taldearen lehendakaria / Presidenta de Consorcio de Desarrollo de la Zona Media de Navarra

Rosario Domingos García

II. **eranskina / Anexo II**

**2025eko aurrekontua /**
**Presupuesto de 2025**

| Azalpena / Concepto | Zenbatekoa/ Cantidad |
|---|---|
| Euskara Sustatzeko Eragilearen kontratazioa (7,5 hilabete) / Contratación del/de la agente de Fomento del Euskera (7,5 meses) | 21.200,00 € |
| Jarduerei dagozkien gastu zuzenak / Gastos directos de actividades | 20.800,00 € |
| **OSOTARA / TOTAL** | **42.000,00 €** |

**III. eranskina / Anexo III**

Gardentasun betebeharrari buruzko adierazpena (PDF).

Organoen osaketari eta dedikazioari buruzko adierazpena (PDF).

Karguen ordainsariei buruzko adierazpena (PDF).

Declaración sobre la obligación de transparencia (PDF).

Declaración sobre la composición órganos de gobierno y dedicación (PDF).

Declaración sobre las retribuciones de los cargos (PDF).